



bilatu

TOKIKOM  
←

barren.eus

nor garen

albisteak

komunitatea

barren PDFan


mediateka

elgoibarren.net

## 'A los pies del caballo' liburua argitaratu du Justo Arriola elgoibartarrak

barren.eus

2016-12-02 07:58



Espaniako Estatuak heroina armatzat erabili ez zuela zioen  
artikulu batek sortutako eztabaidea digitalean parte hartzen ari zen  
Justo Arriola (Elgoibar, 1966), gai horri buruzko liburu bat idazteko

Gida  
komertziala



GUREAN.EUS

beharra sentitu zuenean. Berak kontrako defendatzen zuen: Euskal Herrian heroina zabaltzeko interes politikoa egon zela 80ko hamarkadan.

Justo Arriolaren ustez, indar polizialen eta heroinaren arteko loturaren ebidentziak batuko zituen liburu bat falta zen. Juan Carlos Usó zen eztabaidako artikuloaren idazlea. Harekin harremanetan jarri zen, eta hark ere animatu zuen liburua idaztera. Ia bi urteko lanaren ostean, *A los pies del caballo* liburua argitaratu du elgoibartarrak, Txalaparta argitaletxearekin. Argitaratu duen estreinako libururako dokumentazio lan mardula egin du: Garai hartako aldizkari, egunkari eta liburu pila bat irakurri ditu, eta Euskal Herriko eta Elgoibarko errealitatea jaso du liburuan. Testigantza errealak ere bildu ditu, eta bere azalean bizi izandakoa ere jaso du. Durangoko Azokarako aurkeztuko du *A los pies del caballo. Narcotráfico, heroína y contrainsurgencia en Euskal Herria* izeneko liburua.

Irakurri hemen [Justo Arriolak BARREN aldizkariari eskaini dion elkarritzeta](#) (1014. zenbakia 2016-12-02 -PDF-)

◀ Aurrekoa

Hurrengoa ▶

# gurean.

**Hego Uribeko Amnistiaaren alde mugimenduak hi antolatu ditu Bas**

([http://www.geuria.eus/astea-2017-egitaraua/?utm\\_medium=iframe&utm\\_source=gurianet&utm\\_campaign=2017-astea&utm\\_content=antequera&utm\\_term=0\\_000000000000000000](http://www.geuria.eus/astea-2017-egitaraua/?utm_medium=iframe&utm_source=gurianet&utm_campaign=2017-astea&utm_content=antequera&utm_term=0_000000000000000000))

**G GEURIA.EUS GIZARTE**

**Trastorna2 eta Keskualdeko talde garaile, Rockein lehiaketan**

([http://www.geuria.eus/uribe/rockein-2017-final-kinubak/?utm\\_medium=iframe&utm\\_source=gurianet&utm\\_campaign=2017-astea&utm\\_content=antequera&utm\\_term=0\\_000000000000000000](http://www.geuria.eus/uribe/rockein-2017-final-kinubak/?utm_medium=iframe&utm_source=gurianet&utm_campaign=2017-astea&utm_content=antequera&utm_term=0_000000000000000000))

**Elgoibarko Izarra**



**Bideoak**

**Galiziaren festal**

